

ZAURGARRITASUN BIDEETAN BALANTZAKA.

DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN ARGILUNAK

Tesiaren egilea: Aiala Elorrieta Agirre

Unibertsitatea: Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Ekonomia Aplikatua I Saila

Tesi-zuzendaria: Mertxe Larrañaga Sarriegi eta Mikel Zurbano Irizar

Tesiaren laburpena:

Doktorego-tesi honetan, Gizarte Bazterkeriaren bideetara gerturatu gara, zaurgarritasun-istorioak nola perfilatzen diren aztertze asmoz. Gizarte Bazterkeria azken hamarkada hauetan sakon ikasi, landu eta hedatu den kontzeptua da: esparru ekonomikoaz harago eta ikuspegi multidimentsional batetik, gizareratze-egoeratik urruntzen diren prozesuak ulertu nahi ditu. Kontzeptu jarraitua dugu, etenik gabeko continuuma.

Zehazki, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) jasotzen duten hemezortzi pertsonarekin eginiko sakoneko elkarrizketetan oinarritu gara, zaurgarritasunak har ditzakeen askotariko itxurak behatzeko. DBE prestazioa, zaurgarritasun-ibilbide horietan, ongizatearen euskarri sendoa izanik ere, egoera hauskorak gainditzeko nahikoa sostengu ez dela uste dugu. Ikerketaren izenburuan bertan ematen da aditzera hipotesi nagusi horren arrasto bat: «Zaurgarritasun bideetan balantzaka. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren argi-ilunak». Izan ere, adierazpide horrek ezegonkortasun-zantzu bat iradokitzen digu; prestazioa bazterkeriaren aurkako borrokan hankamotz geratzen delako ideia.

Bizitza-ibilbideak ere continuum beraren parte direla irudikat dezakegu eta, hain zuzen ere, kontakizun pertsonal horiei helduz sakondu dugu Gizarte Bazterkeriaren ikasketan. Horrek guztiak, nahitaez, doktorego-tesiaren moldea baldintzatu du. Izan ere, ekonomiaren esparrutik abiatu arren, bestelako gizarte-zientzien esparruetara hurreratu den diziplinarteko tesiaren aurrean gaude.

Era berean, bigarren mailako ikerketa-lerro gisa, beste hiru jomuga jorratu dira. Hasteko, familia-esparruak zaurgarritasun-istorioak zein bidetatik leundu edota biziagotu ditzakeen aztertu da. Bigarrenik, Gizarte Bazterkeria kontzeptu jarraitua izaki, haustura-uneek bizitza-ibilbideetan utz dezaketan arrastoa miatu da. Azkenik, hirugarren ikerketa-lerro bezala, prestazioari buruzko ezagutzak onuradunen ibilbide pertsonalean izan dezakeen eragina ikertu da. Izan ere, prestazioa jasotzea norberari dagokion eskubidea dela bereganatzea, norberaren egoeran zeresana izan dezakeen faktoreetako bat dela uste izan dugu.

Emaitza nagusi gisa, bazterkeria-faktoreek eta -esparruek elkarren artean kateatzeko dauzkaten era amaigabeen artean, bi eredu nagusi nabarmendu dira: eredu batean euskarri izan daitekeen elementua hutsune nabaria izan daiteke

bigarrean. Bi eredu horietan koka genitzakeen egoerak irudikatzeko, hona hemen gure bi elkarrizketaturen pasarte esanguratsu bana:

«Adiskideak baditut, ez daukat inolako menpekotasunik, ez arazo psikiko edo psikiatrikorik, ikasketak baditut, mugitzeko gaitasuna ... gizarte proiektuetan parte hartzen dut. Norbaitek bazterkerian nagoela esaten badit ... zera esango diot: baztertua izango da, diru asko daukana eta etxean sartuta dagoena, playstationera jolasten, komunikatzeko arazoak izango ditu. Niri dirua ematen badidazu ... baztertuen kolektibo horretatik atera nazakezu. Dirua falta zait, besterik ez» (Aitor).

«Oso bakarrik, ez daukat lagunik, ez daukat inor ... pisuko besteak ez dira lagunak ... Bidean zehar nire bizitzaren zati bat utziz joan naizela sentitzen dut ... Hiltzeko ordua iristen zaidanean, denoi iritsiko zaigu eta ... ordurako pixka bat hilik egongo naiz jada. Hiltzen joan naiz eta ... gertatu zaidan gauza bakoitzak, pixka bat hil arazi nau ...» (Kontxi).